

FUKUSHIMA

Ebakuatuen oinaze isildua

Bizitokia utzi behar izan zuelako depresioak jota bere buruaz beste egin zuen anderearen kasuak eta familiari emango zaion kalte-ordainak jarri gaitu udan Fukushima begira. Eremu hartatik ebakatu zituzten ezin bizia dugu lehen planoan.

| JOXERRA AIZPURUA SARASOLA |

IA HIRU URTE ETA ERDI igaro dira Fukushima zentral nuklearra lehertu zenetik. Lehen egunetan informazioa nonahi topatu genuen eta telebistaz leherketaren berri zuzeneko irudiez eman ziguten.

Lerro eta iritzi ugari eman genuen munduko aldizkari guztietan denok. Hilabeteek aurrera egin ahala hango berriak eta irudiak urritu egin ziren, tokitako gerrekin gertatu ohi den antzera. Abuztuaren amaie-

ran hango berri zipriztin batek Europako berri emaileen arreta bereganatu zuen, alegia, etxea utzi behar izan zuelako, bere buruaz beste egin zuen andere baten familiak 358.000 euro inguruko kalte-ordaina jaso izanak.

Hamako Watanabek bonzo moduan eman zion su bere buruari, eta ez da hondamendiaren osteko depresioaren ondorioz suizidiora jo duen bakarra. Izatez, kopurua hazi egin da aspaldion, ehundik gora izan litezke, baina kasuz kasu frogatu behar direnez, ia ezinezkoa izango da zenbaki zehatzak ematea epe motzean. Alabaina, ingurua apur bat aztertu zuten adituek aski argi utzi zuten: hango jendeari erradiazioak berak baino kalte handiagoa egin ziola ebakuzioaren estresak. 150.000 lagun atera zituzten beren lurraldetik ezbeharrak gertatu zenean. Horietarik herenak etxetik urrun eta behin-behineko babestokitan jarraitzen du oraindik.

Arakutzen aritzeko ohitura duenak ordea, aurkitzen du hango informazioa ateratzeko biderik. Antza, AEBetako armadako kideen arteko transmisioetan sarritan agertzen da eremu haietako erradioaktibitatearen aipamena. Zentral nuklearreko ur erradioaktiboak itsasoratzen jarraitzen du, eta kontrol ezaren



Hamako Watanaberen alarguna, Mikio Watanabe, emaztearen argazkia eskuetan duela.

eragina gero eta handiagoa da, kaltetutako eremua gero eta zabalagoa. AEBetako mendebaldeko itsasertzeraino heldu da erradiazioaren hazkundera. Migrazio luze-ko arrainak, hegaluzea kasurako, erradiazioaren garraiatzaile bihurtu dira, Fukushimako prefekturan gero eta mutazio genetiko gehiago gertatzen zaizkie animaliei eta landareei. Zentral nuklearreko urak gelditzeko izotzezko estaldura eraikitzen hasi ziren duela

bost hilabete, baina bertan behera utzita dago, izan ditzakeen ondorio txarren beldur. Tiroideko minbizia ugaldtu egin da gazteen artean. Adibide txikiak besterik ez dira.

Deigarria zait Japoniako gizartearen isiltasuna. Harrigarria zait hango oinazea gorde beharra. Hango jendarteak Hiroshima eta Nagasakikoa gertatu zenetik isilik jarraitzen duela uste dut. Duela 70 urte gertatutakoa eta Fukushimakoa ez dira nahikoa izan gizartea eraldatzeko. Bonba atomikoek eragindako sarraskiaren ondoren energia nuklearrean oinarritutako herrialdea osatu dute, eta Fukushimakoa, ordaindu beharreko zerbait gisa onartzen dela iruditzen zait, patu ekidin ezina balitz bezala, espanturik gabe pasa beharrekoa.

Esaten ari naizena gogorra da eta ziur naiz han ere kolore guztietako pertsonak izango direla, baina belaunaldi batek energia nuklearrekin bizitzeko erronkari heldu zion eta ezerk ez du belaunaldi zahar hura mugiarazi, ezta Hamako Watanabe 58 urteko emakumearen suizidioak ere. Tamalez, Japoniaren berreraikitze nuklearrak aurrera darrai. ■

